

Bilbo eta arkitektura arrazionalista: 30. hamarkadako auzo etxeak*

(Bilbao and rationalist architecture. Housing in the various quarters of the town in the nineteen thirties)

Muñoz Fernández, Francisco Javier
Oiz Mendia, 1 - 2. C. 48007 Bilbo
caelus@euskalnet.net

BIBLID [1137-4403 (2004), 23; 343-353]

Jaso: 03.12.03
Onartu: 04.01.14

Il. Errepublikaren garaian, Bilboko arkitekturak arrazionalismoaren moda bereganatu zuen. Haatik, arkitektura ideia berriak bereganatzeko modu hutsalak patio itxien inguruko hiri antolamenduak, eta berau arautzen zuten udal-ordenantzek, ez zuten arrazionalismoak proposatzen zituen hiri egitura zein etxebizitzaren barne antolamendu berriak praxian jartzeko aukerarik utzi. Eta hala, Bilboko arkitektoek, bere erara, hiriko azala aldatu zuen arkitektura modernoa egín zuten.

Giltza-Hitzak: Arrazionalismoa. Bilbo. 30. hamarkada. Etxebizitzak. Hirigintza.

En tiempos de la Segunda República, la arquitectura de Bilbao se apropió del racionalismo. Sin embargo, la manera superficial de incorporar las nuevas ideas arquitectónicas, la organización urbanística en torno a patios cerrados y las ordenanzas municipales que reglaban todo ello, no dejaron ninguna opción de poner en práctica las nuevas estructuras urbana ni la nueva organización interna de las viviendas. De esta forma, los arquitectos de Bilbao, a su manera, hicieron una arquitectura moderna que cambió la superficie de la ciudad.

Palabras Clave: Racionalismo. Bilbao. Década de los treinta. Viviendas. Urbanismo.

Au temps de la Seconde République, l'architecture de Bilbao s'est appropriée le rationalisme. Pourtant, la manière superficielle d'incorporer les nouvelles idées architecturales, l'organisation urbanistique concernant les patios fermés et les ordonnances municipales qui réglaient tout cela, ne laissèrent pas le choix de mettre en pratique les nouvelles structures urbaines ni la nouvelle organisation interne des logements. De cette façon, les architectes de Bilbao, à leur manière, firent une architecture moderne qui changea la superficie de la ville.

Mots Clés: Rationalisme. Bilbao. Les années trente. Logements. Urbanisme.

* Artikulu hau egiteko Eusko Jaurlaritzaren finantziarioa izan dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikertzaileak prestatzeko daukan programako beka baten bidez.

1. SARRERA

1937. urtean Enrique, Alejo Carpentier-ren *La Consagración de la Primavera* eleberriko arkitekto gazteak, Parisen ospatzen ari zen Erakustetara hurbildu eta Espainiako II Errepublikak Luis Lacasa eta Jose Luis Serti enkargatu zion Espainiako Pabiloia bisitatu zuen. Le Corbusierren arkitektura eredu zuen eraikinaren biluztasunak izugarri erakarri zuen Kubako arkitekto gazteak.

Jarraian, Alejo Carpentier-ren eleberriko protagonistak, miresten zuen Le Corbusier-rekin lan egitea lortu zuen. Alabaina, Frantzian gutxi eraiki eta bere proiektu urbanistikoekiko arreta eskasak zirela eta, zeharo gogaitu zuten arkitektoarekin egin zuen topo Enriquek.

Arkitektura ideia berrien aitzindari nagusienetariokoaren egoera hau izanik, arkitekto kubatarrek bere herrialdean arkitektura honek izan zezakeen kontrako harrera aurrez ikus zezakeen lasai asko. Bertan, arkitektoak eta bezeroak formen eta espazioen handikerietara ohituta baitzeuden.

Fikzio literarioan Enrique atezuan duen kontua ez da alegiazkoa. Izan ere, abangoardiak garatu ziren guneeetatik at zeharo ezberdinak ziren gizarteetan jaiotako hainbat arkitektoek bere buruari planteatu behar izan zioten galdera izan baitzen. Hots, zer egiten zezaketen Le Corbusier-en arkitekturarekin bere jatorrizko herrialdeetan¹.

2. ARRAZIONALISMOAREN HEDAPENA

Luis Lacasa, Jose Lluís Serti-ekin batera Pariseko Erakusketan Espainiako Pabiloia egin zuen arkitektoak, beste hainbat arkitekto bezala, Espainiara bueltatu zenean arkitektura berriaren alde aritu zen. Bai *Arquitectura* aldizkariaren bitartez, bai 1928ko azaroaren 18an Bilbon eman zuen bezalako zenbait konferentzien bitartez².

Bilboko hitzaldian, arkitekto madrildarrak Espainian garatzen ari zen arkitektura gaitzetsi zuen. Bere aburuz zeharo heterogeneoa, kaotikoa, anarkikoa, lotsatia eta azalekoa zen arkitektura. Ordura arte erabili ziren beste

1. Secundino Zuazo, arkitekto bilbotarrak, *La Gaceta Literaria* aldizkaritik arkitektura arrazionalistaren printzipioak herrialde guztietarako onargarriak ez zirela adierazi zuen. *Europa está en condiciones diferentes a nosotros –zioen– entre nosotros hay que quitar mucha incultura de encima, a público y a constructores*. ZUAZO, S., (1928), "Escritores, arquitectos, damas. Encuesta sobre la Nueva Arquitectura". In: *La Gaceta Literaria*, apirilaren 15ean, 32. zenbakia, 1. orria. Fernando Garacia Mercadal-ek paratutako zenbakia.

2. Luis Lacasa, garaiko beste arkitektoak bezala, hala nola, Manuel Sánchez Arcas, Secundino Zuazo edo Fernando García Mercadal, European garatzen ari ziren arkitektura joeren berri zuen. 1921. urtean Lacasa Dresden egon zen hirigintza ikasten, ondoren hiru urtez egin zuen lan bertoko udaleko Bulego Teknikoan, eta 1923. urtean, sortu berri zen Bauhaus-ean hainbatean egon zen. SAMBRICIO, C., (1978), "Arquitectura". In: *Historia del Arte Hispánico. El Siglo XX*, Madril, Alambra, 29-34. orriak.

arkitektura estiloak bezala, arrazionalismoaren arriskueta bat, berau modu hutsalean erabiltzea zela uste zuen. Eta hala arkitektoek, arrazionalismoarentzat garrantzitsuak ziren argiztapena, eguzkitapena, aireztapena eta oinplanoaren banaketan inolako planteamendu arkitektonikorik egin gabe, baizik eta hauek ekidituz, kubo ederrak baino proiektatuko ez zituztela uste zuen³.

Luis Lacasa-ren, zein Fernando García Mercadal-en, Manuel Sánchez Arcas-en edo Walter Gropius-en hitzaldiak Bilbon, *Arquitectura* eta A.C. moduko aldizkarien lanarekin batera, Europan egiten ari zenaz jabetzeko iturri garrantzitsuak izan ziren⁴. Haatik, arkitektura joera berri hau gehienetan goganbeharrez ikusi zen, eta Luis Lacasa-k aurre ikusi zuen bezala, erakinen aurrealdea dekoratzeko modu berri bat bezala baino ez zen ulertu.

Bilboko *Propiedad y Construcción* aldizkaritik, Tomas Bilbao, E. Loygorri de Pereda, Estanislao Segurola edo Felix Agüero moduko arkitekto eta kritikariek, dekorazioaren gehiegikeriak deitoratu bazituzten ere, *Mercadal-en arrazionalismo eskeletikotik* urrundu ziren⁵.

Tomas Bilbaoren aburuz, arkitektura honen arrakasta dekorazioaren arrazoirik gabeko gehiegizko erabilerak sortu duen nekea da. Alabaina, Tomas Bilbaorentzat arrazionalismoak gutxiesten duen dekorazio edo *zer edo zer gehiago* hori esker, arkitektoak agerian utz dezake bere artista etorria.

Hala ere, Espainiako II. Errepublikarekin batera, arkitektura berri honekiko iritzia aldatu ziren, eta behiala arrazionalismoaren kontra agertu ziren Tomas Bilbao edota E. Loygorri de Pereda bere defendatzaile nagusietan bila-

3. LACASA, L., (1929), "Europa y América, bajo y sobre el racionalismo de la Arquitectura". In: *Arquitectura*, urtarrila, 31-35. orriak, Bilbon eman zuen hitzaldia errepikatzen du. "En la Asociación de Arquitectos. El sr. Lacasa diserta sobre el tema 'Europa y América bajo y sobre el racionalismo'". In: *El Pueblo Vasco*, "En la Asociación de Arquitectos. Conferencia de Don Luis Lacasa". In: *El Liberal*, 1928ko azaroaren 18an.

4. *Arquitectura* (1918-1936) eta A.C. (1931-1937) aldizkariak, arkitektura ideia berrien hedatzaile nagusiak izan ziren. Luis Lacasa *Arquitectura* aldizkariako erredakzioko partaidea izen zen eta Fernando García Mercadal-ek hainbat artikulu argitaratu zituen bertan. A.C. aldizkariaren harpidedunen artean Casto Emiliano Amann, Tomas Bilbao, Manuel Ignacio Galindez, Pedro Guimón, Juan de Madariaga eta Estanislao Segurola arkitektoak, eta Roque Manterola eta Enrique Panera eraikitzaileak zueden. SANZ ESQUIDE, J.A., (1986), "La arquitectura en el País Vasco durante los años treinta". In: *Arte y Artistas Vascos de los años 30*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 137. orria.

Arkitektura berriaren hedapenean, Fernando García Mercadal-en (1928/V/16), Luis Lacasa-ren (1929/XI/18), Manuel Sánchez Arcas-en (1929/XI/21) eta Walter Gropius-en (1930/XI/10) hitzaldiak garrantzitsuak izan ziren. MUÑOZ, F. J., (2001), "La difusión de la Nueva Arquitectura en Bilbao. La arquitectura en la década de los treinta", en *Miscelánea de Arte Contemporáneo Vasco*, Bilbo, Deustuko Unibertsitatea. Bizkaiko Foru Aldundia, 145-174. orriak.

5. BILBAO, T., (1928), In: LOYGORRI DE PEREDA, L., "El progreso urbano de Bilbao. Un nuevo éxito del inspirado don Tomás Bilbao y Hospitalet". In: *Propiedad y Construcción*, uztaila, 7. orria, SEGUROLA eta AGÜERO, (1928), In: LOYGORRI DE PEREDA, E., "El progreso urbano de Bilbao. Los señores Segurola y Agüero están construyendo para don Ángel Buesa unas casas que son el prototipo de vivienda práctica". In: *Propiedad y Construcción*, iraila, 6. orria.

katu ziren *Propiedad y Construcción* aldizkariaren talaiatik. Arkitektura berrian, garaiko aldaketekin bat egiten duen edertasuna ikusten da orain, aurreko urteetan onartzen ez zen *edertasun eztabidaezina*⁶. Modu honetan, nahiz eta azalean baino ez izan, 1932. urtetik aurrera, Bilboko auzo etxe gehienen aurrealdeak arrazionalismoaren proposamen estetikoekin bat egin zuten.

3. HIRIA

Arkitektura ideia berriak bereganatzeko modu hutsalak, Bilboko arkitekturen azaleko izaeran eragin izan zuen. Baina azaleko izaera honetan eragina izan zuten ere, jada existitzen zen etxadi itxien inguruko hiri egitura, eta arrazionalismoarekin bat egiten zuten berrikuntza urbanistikorik zein etxebizitzaren banaketa berririk ahalbideratzen ez zituzten eraikuntza arauak⁷.

1876an Bilboko Zabalguneko egileak, Pablo de Alzola, Severino de Achucarro eta Ernesto Hoffmeyer-ek, bere proposamena *mengela* eta bertatik zabalguneko *doilorra* aterako zela onartu zuten⁸. 1935. urtean Manuel I. Galindez arkitektoak faltan botatzen zituen hiriak ez zituen zonalde libreak eta, agian 1862. urtean Amado de Lazarok egin zuen proposamena gogoan zuela, aurrera atera ez ziren beste proiektuak bai orientazioan, bai eguzkitapenean egokiagoak zirela zioen⁹.

1906. urtean Bilboko Udalak udal-ordenantza berriak onartu zituen. 1902ko Pariseko ordenantzak eredu zituen araudi honen helburua etxebizitza higienikoa bermatzea zen. Horretarako, eraikinen altuera kaleen zabalarekiko proportzionala izan behar zuen, eta kalera zabalik ez zegoen gela orok argia eta airea patioetatik izan behar zuen¹⁰.

6. BILBAO, T., (1932) In: LOYGORRI DE PEREDA, E., (1932), "El progreso urbano de Bilbao. Cuatro obras de Tomas Bilbao". In: *Propiedad y Construcción*, abendua, 10. orria., MALLETT-STEVENS, R., (1926), "Las razones de la en Arquitectura", In: *Arquitectura*, abendua, 484. orria literalki errepikatzen du Tomas Bilbao. LOYGORRI DE PEREDA, E., (1932), "El progreso urbano de Bilbao. Nueva casa doble, propiedad de don Domingo de Hormaeche, arquitecto don Manuel Galíndez". In: *Propiedad y Construcción*, urtarrila, 7. orria.

7. Frankfurt eta Bruselaren 1929 eta 1930. urteetan etxebizitza minimoren inguruan ospatu ziren II eta III CIAM-etako ideiak kontuan hartu zuen proiektu bakarra, 1932. urteko C. E. Amanen Solokoetxeko udal etxebizitzak dira. Bestelako proposamenak, Luis Vallejo, Juan de Madariaga eta Joaquín Zarranz, 1929ko Etxebizitza Minimorako Nazio Lehiaketan proposatu zituzten ideiak kasu, paperean baino ez ziren gelditu. SANZ ESQUIDE, J.A., (1990), "Arquitectura y 'vivienda mínima' en los años treinta. La contribución vizcaína al debate europeo". In: *Bilbo. Arte eta Historia. Bilbo. Arte e Historia*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 2. liburukia, 167-184. orriak.

8. ALZOLA, P.; ACHÚCARRO, S.; HOFFMEYER, E., (1878), *Memoria del Proyecto de Ensanche de Bilbao*, Bilbo, Imprenta, Litografía y Librería de Juan E. Delmas, 49 eta 56. orriak.

9. GALÍNDEZ, M. I., (1935), "Lo que ha crecido Bilbo en estos cinco lustros". In: *El Pueblo Vasco*, maiatzaren 1a.

10. *Ordenanzas Municipales de la Invicta Villa de Bilbao*, Bilbo, Imprenta y Encuadernaciones M. Aldama, 1906. 1910 eta 1918. urteetan zenbait aldaketa eta eransketa egin ziren.

Egia da udal-ordenantzek ez zutela gutxienerako gela zenbaki bat ezartzen, baina bai 1925. urtean onartu zen *Reglamento de Sanidad Municipal* delakoak:

En interés de la higiene y de la moral, la vivienda de una familia con hijos deberá constar, en términos generales, de cocina, retrete independiente, alcoba para el matrimonio, alcoba para los hijos y habitación de estancia común, todas con la cubicación y la ventilación prescritas por la higiene¹¹.



[Fig. 1] María Díaz de Haro 54. Rafael Fontán. 1934-1935.

1906 eta 1925eko araudi hauek, guztietan bete ez baziren ere, 30. hamarkadan indarrean jarraitu zuten. Urte hauetan, 1876 zabalgunea plana eta 1907ko Federico de Ugaldereen zabalgunearen handitze proiektua oraindik bete gabe zeuden¹². 1924. urtean Bilbok Begoña, Deusto eta Erandioko zati

11. 16. artikulua, *Reglamento de Sanidad Municipal*. Presidencia del Directorio Militar. Real Orden de 9 de febrero de 1925. In: *Gaceta de Madrid*, 1925ko otsailaren 17an, 48. zenbakia, 726-733. orriak.

12. RODRÍGUEZ-ESCUADERO, P., (1991), *El Ensanche de Bilbao*, Madril, Universidad Complutense de Madril, 1. liburukia, 409-436. orriak. AZPIRI, A., (2002), "Euskal Herriko Hiriak Eratzen Dituzten Zabalgunek". In: *Hiri Zabalgunek Euskal Herrian*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 127-135. orriak. PÉREZ DE LA PEÑA, G., (1999), *Hirigintzaren Kartografia Bizkaian (1857-1956)*, Bilbao, Bizkaiko Foru Aldundia, 28. irudia.

bat beretu zituen. 1927 eta 1929 bitartean Estanislao Segurola eta Marcelino Odrizola udal arkitektoek eta Jose Baquero topografoak anexionatutako zonaldearen zabalguneguneko proiektua egin zuten¹³. Aurreko zabalguneguneko proiektuak ez bezala, azkeneko honetan zirkulazioa ere erregulatu zuten. Hiri egitura ordea, etxadi itxien ingurukoa izaten jarraitzen zuten.

Udal ordenantzen arabera, XIX. mendeko zabalguneguneko zazpi solairuetako auzo etxeak eraiki zitezkeen bitartean, anexionatutako lurraldeetan lau edo bost altuerakoak baino ez zitezkeen eraiki [Fig. 1 eta 2]. Gainera, beretutako zonalde batzuen orografi maldatsua zela eta, eskuarki Begoñan, eraikuntza ez zen batere bideragarria.

Horretaz gain, XIX. mendeko zabalguneguneko urbanizazio prozesua, hiriko beste zonaldeetan baino aurreratuagoa zegoen. Garaiko prentsa Indautxu moduko auzunetan garatu zen eraldaketaren lekukoa da¹⁴. Bitartean, anexionatutako zonaldeetako kalerik nagusienak, Ramon y Cajal Kalea edota Kristo Begoñarako Errepidea, 1935. urtean oraindik urbanizatu gabe zeuden¹⁵.



[Fig. 2] Iturribide 87. Rafael Fontán. 1933. (eraitsia).

13. 1926ko martxoan Bilboko Udalak zabalguneguneko berria egiteko ideia lehiaketa antolatu zuen. Joseph Stübber alemandarrari lehenengo saria egokitu zitzaion. Fernando García Mercadal eta Otto Büntz, eta Estanislao Segurola eta Félix Agüero bigarren saria jaso zuten. Beste zazpi sari gehiago eman ziren César Cort, C. Emiliano Amann, Federico de Ugalde, Fernando Rosales, Francisco Durán, Francisco Wais eta Antonio M. Setieni. Udal teknikariek burutu zuten proiektuaren memoriaren arabera, beretutako herrien zabalguneguneko lehiaketaren irabazlea eta beste parte hartzaileen ideiak kontuan hartu ziren. AZPIRI, A., (2001), *Urbanismo en Bilbao. 1900-1930*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzak, 211-214. orriak. AZPIRI, A., (2002), "Euskal Herriko Hiriak Eratzten Dituzten Zabalgunegunak", opus cit., 135-41. orriak. GALARRAGA, I., (2002), "Zapuztutako Proiektuak: Paper Huts Geratutako Zabalgunegunak". In: *Hiri Zabalgunegunak Euskal Herrian*, opus cit., 202-204. orriak.

14. LOYGORRI DE PEREDA, E., (1934), "El progreso urbano de Bilbao. Casa cuádruple que construyeron en Indauchu, para la "Metalaría General Artística", los arquitectos señores Araluce y Ajuria", en *Propiedad y Construcción*, urtarrila, 8-9. orriak.

15. "Lo que ha crecido Bilbo en estos cinco lustros". In: *El Pueblo Vasco*, 1935.ko maiatzaren 1a. Ramon y Cajal Kalea gaurko Agirre Lehendakaria Etorbidea da, Deustun, Bilbo Abrarekin lotzen zuena, eta Kristo Begoñarako Errepidea berriz gaurko Zumalakarregi Etorbidea, Bilbo Begoñarekin eta Galdakaorekin lotzen zuena.

Guzti honetaz gain, kontuan hartzen badugu garaian gutxi eraiki zela, besteak beste, krisialdi ekonomikoa eta Errepublikaren gobernu demokratiko berriaren aurreko mesfidantza zirela eta¹⁶, ez da harrizkoa, auzune etxe gehienak etekin ekonomiko hobekoak eskaintzen zituen XIX. mendeko zabalgunean kokatu izana.

4. AUZUNE ETXEAK

4.1. Klase ertainentzako etxeak

Pedro Guimon arkitektoak adierazi zuen moduan, etxeak etekin bat ateratzeko eraikitzen dira, eta krisialdi ekonomikoa nagusi den garaian, jabeak bere buruari galdetzen dio etxe garestia, merkea edota mota ertainekoa eraikitzea komeni zaion¹⁷.

Lan esku espezializatuak kooperatiben bitartez bere etxebizitzak eraikitzen ditu. Bestalde, burgesia komunikazioen erraztasunari esker, Bilbotik hurbil dauden kostaldeko Algorta, Neguri edo Areetara joan da bizitzera. Manuel I. Galindez arkitektoaren ustez, horretan lagungarri izan da Bilboko Zabalgunek Galdakaotik Abraraino biltzen zuen perimetroa aintzat ez hartzea. Horren ondorioz, behiala etxe galantak eraiki zirenen ondoan, gaur, klase ertainentzako etxe apalagoak eraikitzen ari dira. Baina langilearen etxe gabezia oraindik konpondu gabeko arazoa izaten jarraitzen zuela uste zuen Guimonek¹⁸.

4.2. Dekoraziorik gabeko aurrealdeak

30. hamarkadan eraiki ziren auzo etxeen adibide bat Pedro Guimonek Areilza Dokorea 30, Urquijo 70 kaleetan proiektatu zuena da. Zazpi altueratako eraikin honetan, garaiko udal-ordenantzei men eginez, azkeneko bi solairuak modu progresiboan atzeraturik daude bai kaleko aurrealdean, bai patioan dagoen fatxadan ere. [Fig. 3] Loygorri de Pereda hala deskribatu zuen garaiko auzo etxe bat:


de fachadas de puras líneas estilo racionalista –si es que al racionalismo puede calificársele de estilo arquitectónico–, esto es: líneas severas, ausencia completa de temas ornamentales, conjunto armónico en que juegan un papel muy importante los lienzos de ladrillo “vistos”¹⁹.

16. LOYGORRI DE PEREDA, E., (1932), “El progreso urbano de Bilbao. Repercusión de la crisis económica en la industria de la edificación”. In: *Propiedad y Construcción*, uztaila, 9-10. orriak.

17. GUIMÓN, P., In: LOYGORRI DE PEREDA, E., (1932), “El progreso urbano de Bilbao. Consideraciones sobre el problema de la edificación moderna en las ciudades. Casa en la avenida del Dr. Areilza para la razón social Fano Ugarte. Arquitecto don Pedro Guimón”. In: *Propiedad y Construcción*, martxoa, 8 eta 9. orriak.

18. GALÍNDEZ, M. I., (1935), opus cit. Pedro Guimonen gutuna Bilboko Udalarari 1934ko abuztuak 4. *Bilboko Udal Agiritegia*, Sustapen Atala, 1935-EE-111-52.

19. LOYGORRI DE PEREDA, E., (1934), “El progreso urbano de Bilbao. Don Pedro de Ispizua está construyendo cinco casas dobles de vecindad para lo señores de Abando. Descripción de las mimas. Detalles complementarios”. In: *Propiedad y Construcción*, abuztua, 10-11. orriak. Iparraguirre 9 bis, 11, 13, Ajuriaguerra 21eko etxe multzoa.



[Fig. 3] Areilza Doktorea 30, Urquijo 70. Pedro Guimon. 1933- 1934.

Guimonek adreilu gorria alakan eta balkoian kokatu ditu. Beste kasu batzuetan aurrealdeak eraikuntzarako erabili diren materialak begi bistan uzten ditu, eta besteen aldiz, adreilu gorriak etxeko azal guztia betetzen du, Pedro Guimonen Urquijo zumarkaleko 60. zenbakia, edota Raimundo Berazaren Errekalde Zumarkalea 31, Colon de Larreategui 39 auzo etxeak horren adibideak dira.

Beste eraikin batzuetan, kolore ezberdinen konbinazioa garrantzitsua da. Tomas Bilbaoren Ripa 6ko etxea edota Pedro Guimonen Areilza Doktorea 8, Rodriguez Arias 48koa kasu. Izan ere koloreak, Loygorri de Peredaren ustez, erlazio arkitektonikoak ikusgarri egiten ditu. Koloreak *badu fatxadak "mugitzeko" helburu logikoa, lerro hotzen garrazkeria leundu eta alaitzea.*


Arrazionalismoarekin, fatxadak oihartzun historikoko elementu dekoratiboak zokoratu, eta eraikinen elementu estrukturalak erabiltzen ditu, hots, alakak, begiratokiak

eta balkoiak. Balkoi batzuek ezaugarri den zirkuluerdiko errematea dute, nahiz eta begiratokiaren arteko balkoiak ere arruntak izan. Oro har, ezaugarri amankomunak dituzten eraikinak dira: *bai fatxadak, bai oinplanoaren banaketan ere*²⁰.

4.3. Oinplano guziak antzekoak izango dira: patioa erdian, gelak eta korridore luzeak inguruan

Zabalguneko etxebizitzaren barne banaketa antzerakoa da. Gehienak, jantokia, hiru edo lau logela, sukaldea eta bainugela edo/eta w.c.-a dute. Sukaldea, komuna eta logelaren bat patioaren inguruan antolatzen dira. Jantokia, piezarik garrantzitsuena, berriz begiratokian dago eta beste logela bat edo birekin batera fatxadan kokatuta daude. Etxebizitza, bi kaleen artean kokatuta dagoenean, kalera ematen duten gelen kopurua handiagoa da.

20. LOYGORRI DE PEREDA, E., (1933), "El progreso urbano de Bilbao. Breves comentarios sobre las dificultades de estas informaciones. La nueva casa doble que el notable arquitecto don Tomas Bilbao construye en la esquina Henano-Heros". In: *Propiedad y Construcción*, abuztua, 8-9. orriak.



[Fig. 4] María Díaz de Haro 54. Rafael Fontán. 1934- 1935. (Bizkaiko Foru Agiritegia).

eraikinak dira. Hots, Raimundo Berazaren Errekalde Zumarkalea 31, Colon de Larreategui 39 [Fig. 5], Tomas Bilbaoren Heros 25, Henao 15, eta baita Manuel Maria de Smith-en Errekalde Zumarkalea 48, Poza Lizentziatuko etxea²¹.


Tomas Bilbaok berak Ripa 6ko etxearen inguruan mintzo denean, arrazionalismorako iragaita dela dio. Izan ere, espazioaren banaketa ez dator bat etxearen aurrealdearekin²². Arrazionalismoa orubearen tamaina, forma eta orientazioaren menpe dagoela dio arkitektoak, eta baldintzapen hauek izan dira arrazionalismoarentzat onargarria ez den barne banaketa hau mugatu dutenak [Fig. 6].




[Fig. 5] Errekalde Zumarkalea 31, Colon de Larreategui 39. Raimundo Beraza. 1936- 1938.

21. Manuel Maria de Smith-en eraikina, arkitektoak berak aurreko urteetan burutu zituen burgesiarentzako etxebizitzaren banaketekin alderatuz gero, hau apalagoa bada ere, banaketa orokorra eta zerbitzurako zonaldea antzerakoak dira. PALIZA MODUATE, M.T., (1988), *Manuel María de Smith Ibarra. Arquitecto 1879-1946*, Salamanka, Bizkaia Foru Aldundia, 341-342. orriak.

22. BILBO, T., (1932), In: LOYGORRI DE PEREDA, E., "El progreso urbano de Bilbao. El racionalismo en Arquitectura. Casa ultramoderna construida por Tomas Bilbao en el número 6 del muelle de Ripa, para don Césareo Aguirre". In: *Propiedad y Construcción*, otsaila, 9 y 10. orriak.



[Fig. 6] Ripa 6. Tomás Bilbao. 1932.



[Fig. 7] Gregorio de la Revilla 34. Pedro Guimón. 1933-1934. (Bizkaiko Foru Agiritegia).

Loygorri de Peredaren ustez, burgesiarentzako eraikin hauen banaketa, eredugarria da²³. Baina eredugarriak diren etxe hauek ez dira klase ertainentzako eraikinetan burutzen. Azken hauetan, helburua orubea ahalik eta gehien aprobetxatzea baita, eta ez aireztapena edota argiztapena. Eta hala, patioen inguruko etxeak edota leiho bako gelak arruntak dira, Pedro Guimonen Gregorio de la Revilla 34 etxean gertatzen den moduan [Fig. 7].

5. DESERTOREAK

Pedro Guimonek eta Casto Emiliano Amannek etxeen behialako antolaketan behartzen zuten udal-ordenantzak salatu zituzten. Etxeak bi alde izango zituztela zioten, bata barnealdera eta bestea kanpoaldera; eta etxe guztiek antzerako banaketa izango zutelako, patioa erdian, gelak inguruan eta gela guztiak lotzen zituzten korridore luzeak²⁴. Pedro Guimonek halako egitura nola ekidin zitezkeen galdetzen zion bere buruari.

23. LOYGORRI DE PEREDA, E., (1933), opus cit., 8-9. orriak.

24. GUIMÓN, P., (1934), "El progreso urbano de Bilbao. Nueva casa doble en el ángulo de las calles de la Alameda de Urquijo y la calle del Doctor Areilza. Arquitecto don Pedro Guimón". In: *Propiedad y Construcción*, ekaina, 8. orria. AMANN, C.E., (1933), In: "El progreso urbano de Bilbao. El futuro e importante bloque de casas que para el 'Hogar Propio, S.A.', construirá el notable arquitecto don C. E. Amann". In: *Propiedad y Construcción*, maiatza, 6-8. orriak.

Emiliano Amannen ustez eraikitzeke modurik egokiena Solokoetxeke eta Torre Urizareko etxadiak duten U egitura zen. Ildo berean, Loygorri de Peredak, patio itxirik ez erabiltzea proposatzen zuen, eta Pedro Guimonek kalera zabalik zeuden patioak. Alabaina, proposamen hauek ez ziren aurrera atera²⁵.

Arkitekto gehienak zabalgunek inposaturiko egiturara eta hau arautzen zuen udal-ordenantzetara moldatu ziren. Gainera, arkitektoen eta bezeroen arkitektura ulertzeko era, ahalik eta etekinik handiena lortzea zen nagusi eta ez higieñez edota arrazionalismoak proposatzen zituen beste arazoetaz arduratzea.

Enrique, Alejo Carpentier-ren *La Consagración de la Primavera* eleberriko arkitekto kubatarrek, Le Corbusier-ren tailerrean zegoela Parisen, nagusiaren bidaia bat aprobetxatu zuen tailerretik desertatzeko. Arkitektura propioa egin nahi zuen Enriquek, agian bere herrialdeko bezeroen bat erakar zezakeen arkitektura. Arkitektura moderno bat, bere herrira moldatzen zen arkitektura. Bilbon ere arkitektura antzaz moderno baten alde egin zuten arkitektoek, Enrique bezala, arrazionalismotik desertatu eta, bere erara, hiria aldatu zuten arkitektura berri bat egin zuten.

25. LOYGORRI DE PEREDA, E., (1934), "El progreso urbano de Bilbao. Casa Elajebeitia en Deusto". In: *Propiedad y Construcción*, martxoa, 6-7. orriak. GUIMÓN, P., (1934), opus cit., 8. orria. Patioa kalera zabalik zuen etxadia eraiki zuen Antonio Palacios-ek Madrilen hamarkada bat lehenago, 1923-25ko Viriato 20 kaleko eraikinean kasu. Tomas Bilboak Errekalde Zumarkalea eta Lersundi kaleen artean, patioa kalera irekita zuen antzeko proiektu bat burutu zuen, ez zen eraiki ordea. AA.AA. (2001), *Antonio Palacios. Constructor de Madrid*, Madril, Ediciones la Librería, 176-177, 371. orriak. PROPIEDAD Y CONSTRUCCIÓN, (1935), "El progreso urbano de Bilbao. Felices resultados de una novedad en la parcelación de terrenos. Proyecto de don Tomas Bilbao para dos casas dobles entre las calles de Lersundi y Alameda de Recalde". In: *Propiedad y Construcción*, otsaila, 8-9. orriak.